

OSASUN DEPARTAMENTUAREN PROZEDURA, IKASTETXEETAN IKASLEEN COVID KASUAK KUDEATZEKO

IKASTETXEKO IKASLE ETA LANGILEEN COVID KASUEN KUDEAKETA

1. Ez dute ikastetxera joan behar baldintza hauetakoren bat betetzen badute:

- PCR baten edo beste proba diagnostiko molekular baten emaitzaren zain badaude.
- Bakartuta badaude, PCR+ bidez diagnostikatutako koronabirusaren infekzioa dutelako.
- Berrogeialdian badaude, COVID-19 kasu baieztatu baten kontaktu estua direlako.
- **Koronabirusak eragindako infekzioarekin bateragarriak diren sintomak badituzte:**
 - Kasu horretan, adinaren arabera, senideak edo tutoreak edo adingabea bera jarriko dira harremanetan osasun-zentroarekin edo Osasun Aholkuak Jasotzeko Zerbitzuaren erreferentziako telefonoarekin (948 290 290), kasua azter dezan, PCRaren eskaera erabaki eta, hala badagokio, etxeko bakartzea ezar dezan, emaitza jakin arte. Sintoma larririk badu, 112 zenbakira deitu behar da.
 - PCRa 24 orduko epean egingen da.
 - Kasu positiboa dela baieztatzen bada, bakartzearekin jarraituko da eta osasun etxeko medikuak/erizainak kasuaren jarraipena egingen du.

2. Definizioak.

- **Kasu susmagarria:** ikastetxeko edozein langile edo ikasle, koadro kliniko hau duena: arnas infekzio akutua (handia), bat-batean agertua, edozein larritasunetakoa eta eragiten diona, besteak beste, sukarra, eztula edo aire-falta. Beste sintoma batzuk ere –hala nola odinofagia, anosmia, ageusia, giharretako mina, beherakoak, bularraldeko mina edo zefaleak– har daitezke SARS-CoV-2ak eragindako infekzioa duela susmatzeko zantzutzat, irizpide klinikoaren arabera.
- **Baieztatutako kasua, infekzio aktiboarekin:**
 - Kasu susmagarriaren irizpide klinikoa betetzen duen pertsona, eta PCR positiboa duena.

- **Kontaktu estua:**

- Baldin baieztatutako kasua bada bizikidetza-talde egonkor batekoa (BTE): kontaktu estuzat hartuko dira taldeko pertsona guztiak.
- Baldin baieztatutako kasua bada BTE gisa antolatua ez dagoen gela batekoa: kontaktu estuzat hartuko da edozein ikasle egon dena 15 minutuz baino gehiagoz maskararik gabe baieztatutako kasuarengandik <2 metroko distantziara, salbu eta LHko 1. mailatik 6.era bitarteko ikasleak, horiek kontaktu estu gisa sailkatuko baitira maskara erabili ala ez.
- Baieztatutako kasuekin bizi direnak.
- Ikastetxeko edozein profesional, irakasle zein bestelako langile, egon dena 15 minutuz baino gehiagoz maskararik gabe baieztatutako kasuarengandik <2 metroko distantziara.

Aldi hau hartuko da kontuan: hasi kasuak sintomak izan baino 2 egun lehenagotik eta kasua bakartzen den unera arte. PCR bidez baieztatzen diren kasu asintomatikoei dagokienez, diagnostikoaren aurreko 2 egunetan izandako kontaktuak bilatuko dira.

3. Kasuen kudeaketa

Ikastetxean, eta gaur egungo testuinguruan, kasuen detekzio goiztiarra eta haien bakartzea, bai eta kontaktu estuena ere, dugun neurririk garrantzitsuenetakoa da segurtasun-inguruneari eusteko eta hezkuntza- eta pedagogia-helburuak lortzeko.

Ikasle batek ikastetxean COVID-19arekin bateragarriak diren sintomak baditu:

- Maskara kirurgiko bat emanen zaio ikasleari (2 urtetik gorakoa bada), eta beste bat gurasoak edo tutoreak iritsi arte hura zainduko duen helduari.
- Ikasleak ezin badu maskara kirurgikorik jarri, helduak FFP2 maskara jarri beharko du, balbularik gabekoa betiere.
- Ikasle hori eraman behar da aldeztatik aukeratutako banakako erabilerako gela batera; aireztapen egokia izan behar du, eta pedala duen zakarrontzia, horra botatzeko maskara eta behin erabiltzeko zapiak.
- Familiari edo legezko tutoreari jakinaraziko zaio harremanetan jarri behar duela bere osasun-zentroarekin edo Osasun Aholkuak Jasotzeko Zerbitzuaren erreferentziako telefonoarekin (948 290 290), kasua azter dezan, PCRaren

eskaera erabaki eta, hala badagokio, etxeko bakartzea ezar dezan, emaitza jakin arte. Sintoma larririk badu, 112 zenbakira deitu behar da.

- PCRa 24 orduko epean eginen da.
- Kasu positiboa dela baieztatzen bada, bakartzearekin jarraituko da eta osasun etxeko medikuak/erizainak kasuaren jarraipena eginen du.

Ikastetxeko ikasleen kontaktu estuen kudeaketa

- Ez da ezarriko eskolako kontaktu estuen berrogeialdirik, probaren emaitza positiboa dela jakin eta infekzioa baieztatu arte.
- Ikasturte hasieran, gurasoei baimen informatu bat helaraziko zaie, kontaktu estuzat jotako hurrei PCR proba egiteko.
- Ikastetxeetako zuzendaritza-taldeak eta Covid arduradunek baieztatutako kasu positiboen jakinarazpena jasoko dute, eta, jaso ondoren, honela jokatu dute:

A) Haur eta Lehen Hezkuntza (bizikidetza-talde egonkorak - BTE):

- Berehala isolatuko da talde osoa haren erreferentzia-gelan.

- Familiei jakinaraztea:

1. Abisua jaso ondoren, ikastetxeak posta elektronikoko/sms bidez jakinaraziko die taldea osatzen duten familia guztiei, eta adieraziko die ikastetxera joan behar dutela beren semea edo alaba jasotzera.

2. Horretaz gain, zuzendaritza-taldeak aukeratutako pertsonak telefonoz deituko diete ukitutako taldeko familiei, eta azpimarratuko diete garrantzitsua dela ikastetxera ahalik eta azkarren joatea semearen edo alabaren bila, alarmerik eragin gabe.

- Eskola-orduen amaieran familia ez bada etorri semea edo alaba hartzera, ikastetxeak egoera horietarako ezarrita duen protokoloa aktibatuko du. Ezin izanen da inola ere erabili eskola-garraioa.

B) DBHko 1. mailatik aurrerako taldeak

- Osasun-arduradunek kontrakorik esaten ez badute, taldeak normaltasunez jarraituko du bere jarduerarekin; izan ere, talde horietako ikasleak ez dira harreman estukoak, non eta ez diren gertatzen kontaktu estuaren definizioaren atalean deskribatutako egoerak; kasu horretan, kontaktuen bilaketa-taldea harremanetan jarriko da inplikaturako pertsonekin.

- Osasun Departamentuak berrogeialdia ezarriko die kontaktu estutzat jotzen diren ikasleei (salbu eta norbaitek PCR proba baten bidez baieztatutako koronabirus infekzio bat izan badu edo proba serologikoa positiboa izan bada aurreko 6 hilabeteetan).
- Osasun Departamentuak PCR proba ezarriko du berrogeialdiaren hasieran:
 - Positiboa bada, baieztatutako kasua da.
 - Negatiboa bada, berrogeialdiarekin jarraituko da eta PCRa errepikatuko da baieztatutako kasuarekin azken kontaktua izan zenetik 10. eguna betetzean.
 - Negatiboa bada, berrogeialdia bukatu eta ikastetxera itzuliko da.
 - Positiboa bada, baieztatutako kasu asintomatiko bihurtzen da, eta hasten da bakartzea, gutxienez 10 egunekoa, bai eta kontaktu estuen azterketa ere.
- Jarraipenaren uneren batean COVIDarekin bateragarriak diren sintomak izanez gero ere, PCRa egiteko adieraziko da.
 - Positiboa bada, infekzio aktiboa duen baieztatutako kasua da, eta hasten da bakartzea, 10 egunekoa, bai eta kontaktu estuen azterketa ere.
 - Negatiboa bada, berrogeialdiarekin jarraituko du 10. egunera arte; egun horretan beste PCR bat egingen zaio.

Baieztatutako kasu bat ikastetxera itzultzea

Prozesu arina izaten ari diren eta ospitaleratzeko irizpiderik izan ez duten ikasleak bakartuak egonen dira gutxienez 10 egunez, baldin eta 3 egun badaramatzate sintomarik gabe. Osasun etxeko profesionalak jarraipena egin, eta alta aginduko dute. Ez da beharrezkoa kontroleko PCR proba bat egitea ikastetxera itzultzeko.

IKASTETXEKO IRAKASLEEN ETA IRAKASLE EZ DIREN LANGILEEN KASUAK KUDEATZEA

Kasu horien kudeaketa ikasleenaren antzekoa da. Jakinarazi behar zaio Laneko Arriskuei Aurrea hartzeko Zerbitzuari. Kontaktua estuen agerpena minimizatuko da, prebentzio-neurrien bidez: 2 metroko distantzia gordez, maskara erabiliz eta espazioak aireztatuz.

LANBIDE-PROFILAK

1. Kontaktuen bilaketa-taldeko profesionalak, hezkuntza-arloan dihardutenak

Bilaketa Unitatean, txanda bakoitzean erizain bat edo, beharko balitz, gehiago, arduratuko dira ikasturtean zehar eskolatutako haurren kasuak kudeatzeaz eta kontaktuen azterketak egiteaz.

Hauek izanen dira profesional horren eginkizunak:

- Baieztatutako kasuak identifikatzea. Ikastetxea, ikasturtea eta gela.
- Familiarekin harremanetan jartzea balorazioa egiteko:
 - Sintomatologia eta hasiera-data.
 - Ikastetxea eta gela behar bezala identifikatuak daudela egiaztatzea.
 - Familia-inguruneke eta ikastetxetik kanpoko kontaktuak identifikatzea.
- Ikastetxeko COVID arduradunarekin harremanetan jartzea.
 - Baieztatutako kasu bat dagoela jakinaraztea.
 - Lehen Hezkuntzako 6. mailara arte, gela osoa kontaktu estu gisa balioztatzea. Egon daitezkeen beste kontaktu estu batzuk identifikatzea.
 - DBH, Batxilergoa eta Lanbide Heziketa. COVID arduradunak gelako eta ikastetxeko kontaktu estuen berri ematea.
- PCR eskaerak egitea kontaktu estuetarako.
- Ikasgelan kasu positiboa detektatu ondoren, SMSak/posta elektronikoak idaztea prozesuari buruzko informazioarekin: PCR probarako hitzordua, eta gurasoei edo, adinaren arabera, ikasleei zuzendutako berrogeialdiko informazioa, betiere emaitzak komunikatzeko bitartekoaren arabera (SMSak, osasun-karpeta).
- Berrogeialdiko 7. egunean, bilaketa-taldeak kontaktuen jarraipena egitea eta PCRa eskatzea; sintomarik badago, biharamunerako, eta sintomarik ez badago, 10. egunerako.

2. Ikastetxeko COVID arduraduna

Hauek izanen dira profesional horren eginkizunak:

- Erreferentziako pertsona izatea bilaketa-taldearentzat.
- Ikasturte hasierako bileretan protokoloari buruzko informazioa koordinatzea, guraso guztiek jakin dezaten, kasuren bat gertatzen denean informazio-eskaerak murrizteko.
- Hezkuntza eta Osasun Departamentuen artean birdefinitzen direnak.

Material guztiak EDUCAn jarriko dira, familiek ikasturte hasieratik horren berri izan dezaten, eta Osasun Departamentuak etengabe eguneratuko ditu.

LAGUNTZARAKO TRESNAK

1. Aplikazio informatikoak
 - Bideragarritasun-azterketa, EDUCA kontaktuen bilaketa-aplikazioarekin konektatzeko.
 - PCR eskaera automatikoki sortzea. Familiari SMSak bidaltzea.
 - Osasun-karpeta pertsonala erabiltzea emaitzearako.
2. Ikastetxeetako COVID arduradunen prestakuntza.
3. Gurasoei eta irakasleei informazioa emateko dokumentazio lagungarria.
4. Hainbat eremutako COVID erreferenteen kontaktuen zerrenda.

Azken buruan, osasun agintaritzak, hezkuntza agintaritzarekin koordinatuta, erabakiko du ikastetxe bateko jarduera presentziala partzialki edo osorik ixtea.